

BI MILA ETA HAMAIKAKO UZTAILAREN 13an ETXARRI ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2011ko uztailaren 13an arratsaldeko 20:00etan, Etxarri-Aranazko Udalak ohiko Osoko Bilkura deitu, eta lehenengo deian osatu zuen, arauzko moduan deitu ondotik. **JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA** alkatea mahaiburu izanik eta ondoko zinegotziak bertaratu ziren:

**ENEKA MAIZ ULAYAR and.
AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.
EDURNE IGOA LIZARRAGA and.
IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.
ARACELI ERDOZIA ANSO and.
FRANCISCO MANUEL CAMPOS ARAÑA Jn.
MARIA ARANTZAZU ARTIEDA IGOA and.
MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO.**

Ez da bertaratu:

**MAIDER GOÑI ERRAZKIN and
UGAITZ CRESPO GUTIERREZ**

Eta artatuz, **Iulen Urbiola Loiarde** udal idazkaria

1.- AURREKO AKTA.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondotik, 2011ko ekainaren 30an egindako Osoko Bilkuraren akta onartu da.

2.-UDAL PLANGINTZAREN ALDAKETA

M^a Concepcion Alegria Garciandia 2011/05/24an (sarrera 1010) 3. poligonoko 1.299 lursailarena dagokion hirigintzako Planan aldaketa puntualaren espedientea aurkeztu zuen (antolamendu xehekatuko determinazioak).

Kontuan harturik udal arkitektoak 2011/06/02an egindako txotena, Udalbatzak erabaki du:

Lehendabizikoa._Hasiera batez onestea Etxarri Aranazko Hirigintzako Planan aldaketa puntualaren espedientea (antolamendu xehekatuko determinazioak),) 3. poligonoko 1.299 lursailari dagokiona, M^a Concepcion Alegria Garciandia anderea sustatua, Lurraldearen

Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 74. artikuluan, 79.3 artikulutik hara igorrita, xedatutakoari jarraituz.

Bigarrena._Espedientea jendaurrean jartzea hilabeterako, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Foru Komunitateko egunkarietan iragarkia paratuta, eta ale bat Etxebizitza Departamentuari igortzea arau subsidiarioak unitate honetan 4 BOE eraikitzeke ezartzen duten obligazioa salbuesteko.

Hirugarrena.-Behar den ondorioak izan ditzan, interesatuari jakinaraztea.

Con fecha 24/05/2011 D^a. M^a Concepcion Alegria Garciandia presenta Modificación Puntual del Plan Municipal de Urbanismo de Etxarri Aranatz (Determinaciones de Ordenación Pormenorizada) de la parcela 1.299 del poligono 3.

A la vista del informe elaborado por el arquitecto municipal el 2/06/2011, el Pleno acuerda:

Primero._Aprobar inicialmente el expediente de Modificación Puntual del Plan Municipal de Urbanismo de Etxarri Aranatz (Determinaciones de Ordenación Pormenorizada) de la parcela 1.299 del poligono 3. promovido por D^a. M^a Concepcion Alegria Garciandia de conformidad a lo dispuesto en el artículo 74, por remisión del artículo 79.3 de la Ley Foral 35/2002, de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Segundo._Someter el expediente a información pública durante un mes, mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Navarra y diarios editados en la Comunidad Foral, remitiéndose un ejemplar del mismo al Departamento de Vivienda y Ordenación del Territorio a fin de que éste informe sobre la posibilidad de eliminar la obligación de construir 4 viviendas de VPO previstas en las NNSS que sirvieron de marco en la gestión de la unidad.

Tercero._Trasladar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos.

3.-HEZKUNTZA EKIPAMENDU PUBLIKOAREN KONTZEZIO **ADMINISTRATIBOAREN ESLEIPENA**

Etxarriko Aranazko udalak bere garaian Udal Plangintzaren aldaketa onartu zuen, besteak beste, herri ekipamendu anitzeko lursaila bat eratuz. Udalak ez zuen aurreikusten Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25. artikuluan biltzen diren beharrezko zerbitzu publikoren bat ezartzea aipatutako lursail horretan eta ondorioz kontzesio administratiboaren bitartez bere erabilera pribatiboa baimentzea ikusi zen. Etxarri Aranazko Udalak 2011ko apirilaren 5eko osoko bilkuran administrazio-lagatzeari buruzko baldintzen agiria onartu zuen; lurtzia ekipamendu publikorako erabiliko da eta bertan D ereduko ikasketxe pribatu-kontzertatua ezartzeko. 2011ko ekainaren 29an kontratazio mahia bere bigarren bilera burutu zuen eta pleguaren arabera egindako balorazioari jarraikiz Etxarriko Aranazko udalaren osoko bilkura aho-batez onartu du:

- 1- Herri ekipamendu anitzeko lursailaren kontzesio administratiboa Andra Mari Ikastolako Guraso Elkarteari esleitzea 99 urtetarako, ikastetxe bat eraiki eta kudeatzeko; esleipen-hartzaileak bere eskaintzan onartutako baldintzen eta lehiaketa arautu duen klausulen pleguan diren baldintzen pean.

- 2- Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 108.1 artikuluan xedatuarekin bat, esleipen-hartzaileak (erabaki hau jakinarazi ondoko hamabost eguneko epean) erabiliko den ondasun publikoaren balioaren eta egin behar diren obren aurrekontuaren %3ari dagokion behin betiko bermea utzi beharko du. Bermea KPI-ren arabera eguneratuko da 5 urtetan behin.
- 3- Bermea eman eta gero kontratuaren burutzea egingen da esleipena eta hurrengo hilabetean.
- 4- Alkateari, Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena, behar besteko ahalmena ematea, betearazteko behar diren agiriak sinatzeko, eta, bereziki, kontzesio administratiboa eratuko duen kontratua.
- 5- Erabaki hau argitara eman Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta interesatuei jakinaraztea behar diren ondorioak izan ditzan.

4.- OHIAN ENKANTEA

Alkateak jakinarazten du puntu honetan ez dela ezer tratatuko teknikariekin hitz egin ostean enkantea irailean egiteko aukera hobeago bezala baloratu delako.

5.-BILDU TALDEAREN MOZIOA

Alkateak Bilduren izenean sartutako mozioaren aurkezpena egiten du:

Stockholmeko itunak, errausten (balioztatzen) duten porlandegiak eta errauskailuak (Balioztatze energetiko instalazioak) dioxina eta furano igorle nagusizat identifikatzen ditu, minbizi eragile nagusiak direnak eta zeinen aurrean ez dagoen esposizio babes maila segururik.

Osasun erakundeek eta mundu osoko zientzilariek ohartarazten dute gizakien, animalien, airearen eta uraren osasunerako errausketak dakartzan arriskuez eta 33.000 baino gehiagok Europako Parlamentuaren aurrean ofizialki adierazi dute hauxe.

Horrexegatik errausketa da zalantzarik gabe, hondakinak kudetazeko erarik arriskutsuena eta jasangaitzena, gizakion osasuna eta ingurumena larriki kaltetzen dituen eta bere eraginpeko lurraldearen garapenean ez laguntzeaz gain, bertako baliabideak suntsitzen dituen.

Nekez ariko dira horrelako jarduera batekin batera nekazaritzako industriak, abeltzaintzakoak, esnedunak, ostalaritzakoak, nekazal turismokoak ...

Gogora dezagun, Nafarroako Hondakin Kudeaketarako Plan Integralak aurreikusten duen "balioztatze energetikorako instalazioa" (errauskailua) Tafallaldean kokatzeko aukeraren aurrean, bertako Garapen Kontsultazioak eta udal ordezkariak duten alderdi politiko guztiek kontrako jarrera bateratua agertu zutela, aurretik Tuteran TERNA enpresak pneumatikoak balioztatzeke jarri nahi izan zuen instalazioarekin gertatu zen bezalaxe. UPNk, PSOE-PSNk, NABAik, IUk, Batzarrek eta Independenteeek ezetz esan zioten bi udalerrri horietan errausketa-balioztatze jarduera horri.

Orain kezka beterrik ikusten dugu nola Olatzagutiako Cementos Portland Valderrivas enpresak bere baimenean hondakinak erretzen hasteko aldaketa bat lortu duen. "Kuantitatiboa ez baina jauzi kualitatiboa lortu dugu", adierazi du enpresak, hondakin mota guztiak erretzeko bere asmoa berretsi duen bitartean, hiri hondakinak, pneumatikoak, araztegi-tako lohiak, ibilgailu hondakinak, haragi irinak, ... eta horrela NHKPI-ak aurreikusten duen azken belaunaldiko balioztatze energetiko instalazioa baino arriskutsuago izango den porlandegi-hondakin errauskailu bihurtuz.

Zerbait egiten ez badugu, Nafarroako errauskailua estalian sar daiteke Sakanan, Olatzagutiako porlandegian hondakinaren koinzinerazioaren bidez. Eztabaida sozial eta politikoa eta beste alternatiba batzuk aztertzea saihesteko era aukeratu dute, baimen zuzena enpresa pribatu bati emanez (ez dute erakusketa publikorik ere egin) eta hau hondakin kudeatzaile bihurtuz errausketarekin hasteko. Hau guztia herritarren gaitzespena kontuan hartu gabe, Sakanan bertan 3.200 sakandarrek argi adierazi dutenean Nafarroako Gobernuaren aurrean jarduera honen kontrako jarrera. Modurik zakarrenean inposatu nahi digute beste inon nahi ez duten errauskailua.

Bestalde, porlandegi bat bertan egote soilagatik hondakin errausketa jarduera bat has daiteke, horretarako bereziki desegokia den zonalde batean, NHKPI-an bertan balioztatze energetikorako instalazio bat kokatzeko kontuan hartu behar diren irizpideak aintzat hartuz. Testualki hauxe dio: "Hondakinak kudeatzeko azpiegituren ezarpena, edonolako eragin kaltegarririk gabe lurrerako, landare-dirako eta faunarako, paisaiarako, atmosferaren kalitaterako, uraren kalitaterako eta orohar inguruko pertsona edo ingurumenaren kontrako erasoak ekidinez egin behar da".

Eskualde honek dagoeneko kutsadura maila altua du, gasen ihesbidea eragozten eta hauek pilatzen dituen inbertsio termiko izeneko fenomenoak ematen den baiara baten barrenean, Burunda ibaiaren bazterrean. urak har dezakeen eremuan, herrietatik, hiru parke naturaletik eta LIC-etatik eta baiara hornitzen duen Urdalur urtegitik hurbil. Hau dena kontuan hartuta, NHKPI-ak berak eta balioztatze, konpostatze eta desegite instalazioen kokapenak, errauskailu bat eskualde honetan ezartzeko asmoa baztertzen dute. Hondakinak erretzean sortzen diren emisioen guneetatik 15 km-ko erradioan ekoizten diren produktuak hainbat enpresek erosten ez badituzte eta Europako zenbait estatutan eremu horietan elikagaiak ekoiztea eta merkaturatzea debekatu badute, zer esango duzu equinero edaten dituen eta

Errausketaren aurrean hondakinak tratatzeko alternatibak badira, garbiagoak eta lanpostu gehiago sortzen dutenak, hondakinak gutxitzera bideratutako neurriak proposatzen dituztenak, berreskuratzea eta birziklatzea sustatzen dutenak. Atez ateko bilketak eta beste sistema birritzaileagoek, emaitza ikusgarriak lortzen ari dira, errausketaren premia bertan behera utziz. Olatzagutian errausketa jarduera bat ezartzeak, leiha desleiala sortuko luke beste tratatzeko era horiekin eta hauek ezinezkoak bihurtuko lituzke.

Aintzindari izan da Nafarroa hondakinak kudeatzeko politiketan eta herritarren osasuna eta ongizatea arriskuan ez jartzera bideraturik egon behar dute hauek, tratatzeko era jasangarriagoak lehenetsiz eta hauek ezinezko bihurtuko lituzketen beste batzuk baztertuz.

UDALBATZAK ONARTU BEHARREKO ERABAKIAK

- 1.- Errausketa hondakinak tratatzeko era gisa baztertu eta bereziki Portlan Valderrivas enpresak duen Olatzagutiako porlandegiko labeetan erretzea hondakinak.
- 2.- Jarduera hau behin betirako geldiarazteko, ahalik eta asmo gehien pilatzera bideraturiko udalaren esku dauden gestioak egin.
- 3.- Altsasun 2011ko uztailaren 16an 19:30ean "No a la Incineración de Residuos en Cementos Portland"- "Hondakinen Errausketarik ez Cementos Portlanden" lelopean egingo den manifestazioa bultzatu eta bertan parteharzeko deialdia komenigarri irizten dion bidez zabaldu.
- 4.- Hartutako erabakiak Nafarroako Gobernuko Lehendakariari, Nafarroako Parlamentuari, Landa Garapen eta Ingurumen Departamenduari, Cementos Portland Valderrivas enpresari eta hedabideei jakinarazi.

Bozketa eskua jasoz egiten da: 7 bozka alde eta 2 abstentzio berez mozioa onartzen da.

6.-HELEGITEAK

Alkateak jakinarazten du Nafarroako Auzitegi Administratiboak gorako helegite berriak igorri dituela dagozkion espedienteak eta alegazioak eskatuz hilabeteko epean: 11/2728; 11/2712; 11/2800; 11-2856; 11-2977; 11-2857. Alkateak jakinarazten du espedienteak eta helegitearen kontrako alegazioa batzuk bidali izan dituela (11/2728; 11/2712; 11/2800) Nafarroako Auzitegi Administratibora eta gainekoenak laster bidaliko direla. Osoko bilkurak berresten du Alkateak hartutako erabakiak eta bidalitako alegazioak.

7.-URGENTZIA

6/1990 foru legearen 81.1 artikulua arabera ez ohiko bilkuraren gai-ordenean gai bat gehitzeko zinegotzi guztiak egon behar dira eta aho batez onartu behar da.

Udalbatzak osatzen duten zinegotzi guztiak egonda aho batez onartzen dute Udal Kultur Teknikariak aurkeztutako festetako programa eta aurrekontua aztertzea. (ikusi eranskina).

Dokumentazioa behin aztertuta inork ez du oztoporik edo eragozpenari jartzen eta ondorioz aho batez onartzen da.

Eta aztergaietan beste gairik ez dagoenez, 20:30an presidenteak Osoko Bilkura amaitutzat ematen du, akta idazkariarekin batera sinatu, eta idazkariak horren fede ematen du.

ERANSKINA

2011ko FESTAK, ERROMERIAK, KIROL IKUSKIZUNAK PARTIDA	80000,00
SGAE 2011	fakturaren zai
TXIRRINDULARITZA EKAINAK 11	960 €
FESTAK OROKORRAK	
San Kiriko merienda	254,05
San Adrian bazkaria	390
KOMUNAK SAN KIRIKO SAN ADRIAN	392,08
SAN ADRIAN HARAGIA 2010	390
SAN ADRIAN HARAGIA 2010	396,96
OGIA 2010	63
ANBULANTZIA SAN ADRIAN	450
Abuztuak 15 merienda 2010	249,2
URTE OSOKO ORKESTRAK: 20173	
SAN KIRIKO	1300
SAN ADRIAN	2596
FESTAK LARUNBATA	2200
FESTAK IGANDEA	1947
AMABIRGINAREN EGUNA	2124
FESTAK ASTELEHENA	2478
FESTAK ASTEARTEA	2596
FESTAK ASTEAZKENA	2124
FESTAK OSTEGUNA	0
FERIAK LARUNBATA 2	2100
FERIAK IGANDEA, 3	708
AUZATEAK URTE OSOA: 2.350€	2350
ETXE AZPI (larunbata 130 € + astelehena 250€)	
UDABERRI (larunbata 130 € + asteartea 250 €)	
HARTZABAL (larunbata 130 € + asteazkena 250 €)	
LARRAÑETA (larunbata 130 € + ferietako igandea 350€)	
GURE ETXEA (igandea 350€)	
KARRIKESTU (larunbata 130 € + ferietako larunbata 250 €)	
Urte osoko ardoa 2010	2300
Piroteknia festak	1797,32
Inprenta festak eta beste batzuk 2010	1247,85
KOMUNAK FESTAK 2010	1108,28
Urte osoko txistulariak 2010	750

Sonorizazio osoa	1500
publizitatea 2010	198,24
PLAKA 1 omendua 2011	60

LARUNBATA	
Uharte Arakilgo erraldoiak	800
suziria eta igandeko 2 saio Gaiteroak	325
Txaranga	1400
KARTEL LEHIAKETA 1.SARIA 16tik behera	100
KARTEL LEHIAKETA 1.SARIA 16tik gora	300
LUNTXA	500
Ehiza ibilbidea	250
Irurtzungo dantzariak	250
Lakuntzako dantzariak	250
Auzaterako ogiak	99
IGANDEA	
EGUERDIKO KONTZERTUA. Kantiruki	2200
Ludotren	1296
Zoo park	1944
Herri Kirolak Aizkora	1800
Lastoen erakustaldia herri kirolak	400
ASTELEHENA KUADRILEN EGUNA	
EGUERDIKO KONTZERTUA Bertsolariak	1345,2
Hodei Magoa	250
Haur antzerkia, Argotu	1298
KALEJIRAKO TXARANGA	1400
ASTEARTEA HAURREN EGUNA	
JOLAS PARKEA	1620
TREN TXU TXU	1180
EGUERDIKO KONTZERTUA Etxamendi eta Larralde	2000
Play-Back txapelketa	335
Play back-a Aurkezlea	90
ASTEAZKENA JUBILATUEN EGUNA	
Jubilatuendako bazkaria	5000
Euskaraokearen aurkezlea	90
Kontzertua, mariachi las morenas de mexico	2360
Bixente Setoain soinu-jolea	531
Circortito	3000
Jubilatuentzako puroak	75
OSTEGUNA, KINTOEN EGUNA	
Txirrindularitza, kadeteak	2500
FESTETAKO ZEZENSUZKOA	108

UZTELLAN 30a, LAUNBETA

FESTA BEZPERA (Errepresaliatuen egune)

13:00 Festa hasierako suzeria. Ondoren, Kalejira Etxarri Aranazko buruhandiekin, Uharte Arakilgo erraldoi eta buruhandien konpartsarekin, Etxarri Aranazko gaiteroekin eta txarangarekin. Udaletxean, kartel lehiaketako irabazleei sari-banaketa eta 2010ean jaiotako haurrendako zapi-banaketa. Etxarri Aranazko Abesbatzari omenaldia

14:00 Plazan. Kontzertua: txaranga.

16:00 Ehiza ibilbidea. Antolatzailea: Muxar Ehiztari Taldea.

17:00 Pilota partidak. Antolatzailea: Gure Pilota Elkarte.

Gure Pilota eskolako partiduak

Afizionatuak

17:30 Kalejira txarangarekin.

18:30 Plazan. Euskal dantzen ikuskizuna. Etorkizuna Euskal Dantza Taldea, Lakuntzako eta Irurtzango haur taldeak.

20:00 Salbea Andra Mari basilizan. Etxarri Aranazko Abesbatzak eta Parrokiako Abesbatzak abestuta.

20:30 Auzatea: Hartzabal, Etxe-Azpi, Udaberri, Larrañeta eta Karriestu Elkarateek eskainia.

20:30 / 22:00 Dantzaldia: *Tximeleta*.

22:00 Zezensuzkoa.

24:30 / 04:30 Gaupasa: *Tximeleta*.

UZTELLAN 31a, IYENDIE

ARAÑAZ ELKARTIEN EGUNE

10:30 Dianak Etxarri Aranazko gaiteroekin.

11:30 Auzatea Gure-Etxea Elkarateak eskainia.

12:00/14:00 Haurrendako jokuak, Ludotrena

12:00 Meza nagusia.

13:30 Plazan. Kontzertua: Kantiruki Baigorriko taldea

18:00 Plazan. Haur animazioa: Zoo Park kalejira

19:00 Plazan. Herri kirolak. Laguntzailea: Insalus.

Aizkora apustua, Harrijasotzailea, lasto erakustaldia

20:30 / 22:00 Dantzaldia: *Gaubela*

22:00 Zezensuzkoa.

24:00 / 03:30 Dantzaldia: *Gaubela*

ABUZTUBAN 1a, ASTELENA. KUADRILEN EGUNE

10:30 Dianak txarangarekin
11:30 Auzatea Etxe-Azpi Elkarateak eskainia
12:00 / 13:15. Plazan. Haur animazioa Hodei magoa
13:30 Plazan. Bertsolariak: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Eneko Lazkoz eta Xabier Silveira. Gai jartzailea: Josema Leitza
17:30 Plazan. Kale ikuskizuna. Argotu
18:30 Kalejira txarangarekin.
20:30 / 22:00 Dantzaldia: *Drindots*.
22:00 Zezensuzkoa.
24:00 / 03:30 Dantzaldia: *Drindots*.

ABUZTUBAN 2ye, ASTIERTIE. HAURREN EGUNE

11:30 Auzatea Udaberri Elkarateak eskainia.
11:30 / 13:30 Txu-txu tren a herria zehar.
12:00 / 14:00 Jolas parkea. Umeentzako puzgarriak, zezen mekanikoa, japoniar bonbak...
13:30 Plazan. Kontzertua. Etxamendi eta Larralde
16:30 / 19:30 Txu-txu tren a herria zehar.
17:00 / 19:00 Jolas parkea.
19:30 Plazan. XX. Play-Back Txapelketa.
Sariak: lehenengoa: 100€. Bigarrena: 70€. Hirugarrena: 40€. Beste guztiak: 20€.
20:30 / 22:00 Dantzaldia: *Egan*.
22:00 Zezensuzkoa.
24:00 / 03:30 Dantzaldia: *Egan*.

ABUZTUBAN 3be, ASTIZKENA. AITTUN-AMIÑAN EGUNE

11:30 Auzatea *Hartzabal* Elkarateak eskainia.
12:00 Meza.
12:30 Euskaraokea
13:30 Plazan. "Mariachi las morenas de Mexico" Kontzertua.
14:30 Aittun-Amiñan bazkaria.
16:00 *Bixente* soinu-jolea aittun-amñan bazkarian.
17:30 Neska-mutilen esku-pilota partiduak. Antolatzailea: Gure Pilota Elkartea.
19:00 Plazan. Kale antzerkia.....
20:30 / 22:00 Dantzaldia: *Joselu Anaiak*.
22:00 Zezensuzkoa.
24:00 / 03:30 Dantzaldia: *Joselu Anaiak*.

ABUZTUBAN 4e, OSTEGUNE. KINTUEN EGUNE

10:30 Dianak txarangarekin.
11:30 Auzatea Kintoen eskutik.
13:00 Plazan. Kontzertua: Txaranga
15:00 Kintoen bazkaria.
17:00 Kalejira txarangarekin.
17:00 Txirindularitza lasterketa: kadeteen maila. Antolatzailea: Aralar Txirindulari Taldea.
19:00 Ginkana herritarren parte-hartzearekin. Antolatzailea: Kintoak.
20:30 / 22:00 Dantzaldia: *Disko festa*
22:00 Zezensuzkoa.
24:00 / 03:30 Dantzaldia: *Disko festa*

Oharra: Gorriz dauden ekitaldiak zehazteko daude.